

# JARDUEREN EGITARAUA 2023

## AURKIBIDEA

- 0 SARRERA
- 1 IKERLANAK
- 2 ZABALKUNDEA ETA ARGITALPENAK
- 3 BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK
- 4 *HERMES*, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 5 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA
- 6 EUSKARA
- 7 GAZTERIA
- 8 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
- 9 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 10 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA
- 11 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK
- 12 KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA
- 13 JARDUEREN ONURADUNAK

## SARRERA

Sabino Arana Fundazioa irabazi-asmorik gabeko kultura-erakundea da. Fundazioa 1988ko urriaren 11n sortu zenez geroztik, beraren zereginaren muina euskal historiaren ezagutza izan da: hura jagotea eta ezagutaraztea, betiere historia horri oraingo irakurketa egin dakion bilatuz, eta horrekin guztiarekin batera, ekarpen intelektuala egitea, Euskadik aurrera egiten segi dezan ikuspegi abertzale, demokratiko eta aurrerazale batetik.

*Atzokoan finkatuz, gaur biharkoa bultzatu.* Horixe dugu Sabino Arana Fundazioaren leloa.

Horretarako, lau tresna nagusi baliatu ohi ditugu: Gogoeta eta eztabaida mintzagunea, Agiritegi historikoa, Abertzaletasunaren museoa eta *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkaria.

Jakin dakigu gure iraganaren inguruko gogoeta eta, oro har, gure historiaren inguruko gogoeta, guztiz hausnarketa esanguratsua dela egungo testuingurua ulertzeko, inolako zalantza barik. Iraganari buruzko jakintza egokiak eta hausnarketa sakonak baliabideak ematen dizkigulako ikuspegi kritikoa landu dezagun etengabe aldatzen den eta, zer esanik ez, gu geu bizi gareneko gizarteak dakarzkigun arazo eta erronken aurrean.

2023an, Euskal Herriaren historian esanguratsuak izan diren urteurren hauek ospatzeko jarduerak prestatuko ditu Sabino Arana Fundazioak:

- Lehen euskal egunkari abertzalearen (*Bizkaitarra*) 130. urteurrena.
- *Larrazabalgo Zinaren* 130. urteurrena.
- *La Vasconia* argitalpenaren lehen alearen 130. urteurrena.
- Sabino Arana Goiriren heriotzaren 120. urteurrena.
- Juan Ajuriagerraren jaiotzaren 120. urteurrena.
- Euskal egunkari nagusia izan zen *Euzkadi* egunkariaren lehen alearen 110. urteurrena.
- *La Voz de Navarra* egunkari abertzalea Iruñean argitaratu zen lehen alearen mendeurrena.
- Luis Álavaren fusilamenduaren 80. urteurrena, matxinadari eta espioitzari atxikitzeagatik.
- Joseba Goikoetxea Ertzaintzako sarjentu nagusiaren hilketaren 30. urteurrena.

# 1 IKERLANAK

## Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela hamabi urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharrak egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

## 2 ZABALKUNDEA ETA ARGITALPENAK

### 2.1 Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatuko ditugu DEIA egunkariarentzat.

### 2.2 Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egingo ditugu hainbat irratitan, batik bat, Bizkaia Irratian eta Onda Vascan, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearen.

### 2.3 *Historias vascas*

*Historias vascas* izeneko sailean, –lehen LAU HAIZETARA-ATEAK ZABALIK– Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin lotura duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratuko ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakutsiko ditugu, liburutegiko eta hemerrotekako aleak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak eta abar partekatuko ditugu; aldez edo moldez, Euskadiren historia eraiki duten gai historikoei eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak, gure historialariei irratian egindako elkarrizketak eta abar eskuragarri jarri ditugu.

### 2.4 Argitalpenak

- *Emakumeak Aberria Eginez* liburua aurkeztuko da.
- *Salvad a los niños* liburua berrargitaratuko da.
- Miren Barandiaranen *EAJ alderdiaren aldizkako argitalpenak (1939-1975)*.

### 3

## BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzeko dituzten, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Connecticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpua, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa. Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ildo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalak (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dute gure instalazioetan.

Jarduera hauen helburuak ondokoak dira: gazteek eta helduek pertsona- eta lanbide-garapenean aurrera egiteko dituzten beharrezanezko erantzutea eta lan-eskarmenduaren gisako aukerak eskaintzea.

## 4 HERMES, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2022ko ekitaldian, *Hermes* aldizkariaren hiru zenbaki argitaratuko ditugu, hain zuzen ere, 74., 75. eta 76. zenbakiak.

### 74. zenbakia: ENTZUNEZ ERAIKI entzute aktiboaren ekimena

Ale honetan, 2022an egindako topaldietan ateratako ideia eta ondorio nagusiak jasoko dira, eta EAJ-PNV alderdiaren 2030 Agendaren estrategia lantzeko balioko dute.

Argitalpenean, Xabier Barandiaran EAJ-PNV alderdiaren Berrikuntza Politikoko arduradun eta *entzunez eraiki* entzute aktiboaren ekimenaren koordinatzaileari egindako elkarrizketa jasoko da.

### 75. zenbakia: OSASUN SISTEMA

Osasunaren orainari eta etorkizunari buruzko eztabaida plaza politiko, sozial eta sindikalaren ardatzetako bat da, eta azken aldian, guztion ahotan dabilen auzia da, Euskadin ez ezik, estatuan eta Europan ere bai.

Zenbaki horretan, egun zer daukagun eta zer hobetu dezakegun aztertuko da, lortutako guztiari balioa emanez.

### 76. zenbakia: EUSKARA

Euskarari buruzko zenbakia kaleratuko da, hizkuntza baskonikoazko testurik zaharrena dakarren *Irulegiko eskua* deritzon aurkikuntzaren urteurrenean.

Mintegiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak ditugu Sabino Arana Fundazioak darabiltzan baliabide nagusiak XXI. mendean bertan bizi ditugun errealitate anitzak ezagutzeko. Jardunaldi eta topaldi horietan, hainbat jakintza-arlotako pertsonak bai eta, sarritan, kontrako ideologiak dituztenek, mahairatzen dituzte iritziak eta ideiak erkatzen dituzte, kultura-truke sustatzeko asmoz. Horrela, elkarguneak sustatzen dira kultura, politika eta gizarte ikuspegi desberdinetatik.

Jardunaldi horietako guztiak irekiak dira jendearentzat eta, horregatik, orotariko eztabaida, anitza eta diziplinartekoa ahalbidetzen da eta eztabaidak elkarren artean elikatzen dira.

Mintzaguneetan hamaika gai jorratu ditugu: Europa eta immigrazioa, bake- eta adiskidetze-prozesuak, genero-indarkeria, emakumeak eta botere politikoa, ekonomia- eta finantza-krisialdia, gazteak eta teknologia berriak, Brexit delakoa (irtenbideak eta aukerak), Zigor Zuzenbidea ETArekin amaieraren aurrean... Gai horiek guztiak baliatu ditugu Sabino Arana Fundazioak bereizgarri duen aniztasunaren kultura biziberritu eta bultzatzeko.

35 urteko ibilbidean, 350 hizlari baino gehiagok jardun dute gogoeta eta eztabaida mintzagunean eta 7.500etik gora parte-hartzaile izan dira gaurdaino antolatutako 250 mintegi eta 75 mahai-inguruetan.

Jarduera honen onuradun nagusiak fundazioak jorratzen dituen jakintza-arloetako adituak eta espezialistak dira; agintariak eta politika, ekonomia, eta gizarte esparruetako ordezkariak; iritzi-sortzaileak; irakasleak; profesionalak eta, oro har, gizartea.

### **MINTEGIAK**

2022an, Sabino Arana Fundazioak Euskadi Think Next jarri zuen abian; ekimen horren bidez, joerak aztertze laborategia sortu nahi du, Euskadi garatzeko azterlan estrategikoak lantzeko, Euskadiko, Europako eta munduko ikuspegitik egindakoak.

Gure helburua da pentsamenduaren eta ideia erabilgarrien sorgune izatea, arduradun politikoek eta euskal gizarteko gainerako eragileek erabakiak har ditzaten, zeharkako eztabaidagunea eratuta.

Erabakiak hartzen dituzten gizabanakoei eta erakundeei, eta jendeari berari, tresnak ematea da helburua, gaurtik bertatik etorkizunean jarduteko.

Elkarrizketa sortzen laguntzea da asmoa, etorkizunera begira, eta aditza partekatua erraztea, hainbat gai mahairatuta, gure ekintza-hedadura zabaltzeko aukera emango



diguten formatu berriak baliatuz, Euskadi barruan zein kanpoan, sortutako marka, azpiegiturak, sarea eta edukia kapitalizatuz, tokiko, estatuko eta Europako beste eragile batzuk erakarriz gai bateratuei buruzko hitzaldiak emateko eta, aldi berean, edukia, bultzada eta balio-harremanak sortuz.

## 5.1 *Euskadin gertatu diren eraldaketa handiak zikloa*

Sabino Arana Fundazioak Euskadin azken hamarkadetan gertatu diren eraldaketa handiei buruzko topaldi/jardunaldien zikloa antolatu du. Zikloak sei modulu izango ditu, eta horietako bakoitzean hainbat saio egingo dira. Ekonomia, gizarte, teknologia, ingurumen eta kultura arloetan jazo diren aldaketa handiak eta Euskadik munduan daukan lekua aztertuko ditugu.

Saio bakoitzean, unea-unean lantzen den gaiaren inguruko adituak arituko dira. 2022an, ondoko gaiak aztertu genituen: «Eraldaketa Ekonomian», «Eraldaketa bizikidetzan», «Eraldaketa Administrazioan» eta «Eraldaketa gizartean» aztertu genituen.

2023an, aldiz, ondoko gaiak jorratuko ditugu:

Urtarrilaren 20a	Eraldaketa industrian <i>Jon Azua eta Guillermo Dorronsoro</i>
Otsailaren 17a	Eraldaketa teknologian <i>Alex Rayón</i>
Martxoaren 17a	Eraldaketa ingurumenean <i>Fernando Temprano eta Iván Marten</i>
Apirilaren 21a	Eraldaketa kulturaren <i>J. J. Ibarretxe eta Kirmen Uribe</i>  Euskara eta kultura <i>Andres Urrutia eta Kike Amonarriz</i>
Ekainaren 16a	Euskadi munduan <i>Marian Elorza eta Izaskun Bilbao</i>

## 5.2 *Europaren etorkizuna Irlanda berriro bateratzekotan*

2023an, Europako Alderdi Demokratarekin (EDP) lankidetzan eta Europako politikariek zein nazioarteko adituek parte hartuta, bi mintegi antolatuko ditugu:

Lehenengoan, «Europaren etorkizuna Irlandaren balizko bateratzearen aurrean» aztertuko dugu. Adituen arabera, funtsezko hamarkada batean gaude Ipar Irlanda eta Irlandako Errepublika berriro elkar daitezten. Azken bolada honetan, adituak plangintza bat aztertzen ari dira, bi herrialdeen 100 urteko zatiketari amaiera emango

dion bozketa bideratzeko. Jardunaldi horretan, bateratzearen auzian eragina izan lezaketen alderdi garrantzitsuenetako batzuk jorratuko ditugu.

### 5.3 **Jardunaldia (bigarrena) PDE-EDPrekin elkarlanean**

Bigarren mintegia Espainiak Europar Batasuneko Kontseiluaren Presidentzia hartzerakoan (2023ko bigarren seihilekoa) dauzkan lehentasunekin lotuko dugu, hilabete batzuk lehenago ezagutuko baitira.

### 5.4 **Euskal kulturaren memoria: Arte eszenikoak**

Sabino Arana Fundazioak urtero-urtero antolatzen dituen jardunaldien barruan, frankismoaren sasoian euskal arte eszenikoak Euskadin eta erbestealdian izan zuten garapena eta zabalkundea aztertuko dugu, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean zehar sortutako euskal kultur adierazpenen oroimena aldarrikatzeko.

### 5.5 **Lankidetzaren Larrialdi klimatikoa: lankidetzaren deszentralizatuaren erronkak**

Gero eta beharrezkoagoa ikusten dugu klima-aldaketaren erronkak garapenerako lankidetzaren txertatzea. Izan ere, klima-aldaketaren ezaugarri nagusia paradoxa bat da: berotegi-efektuko gasen isurketa gehienak, mundu mailako berotzea eragiten dutenak, herrialde industrializatuenetik datoz. Hala ere, klima-aldaketaren ondorio okerrenak herrialde pobreenetan edo garabidean dauden herrialdeetan gertatzen dira: Erdialdeko Amerikako eta Karibeko urakanak edo Saharaz hegoaldeko Afrikako lehorteak, adibideren bat jartzearen.

Euskal Autonomia Erkidegoan, IHOBEn sozietate publikoak aholkuak ematen dizkio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari, ingurumen-politika garatzeko eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura hedatzeko helburuz. Bestalde, sozietate publikoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin lankidetzaren ari da azken bolada honetan.

Gainera, Euskadin ere badugu BC3, Klima Aldaketarako Euskal Zentroa, mintegi hau antolatzeko aliatu bikaina dena.

Gaia jorratzeko jardunaldi bat egin nahi dugu, 9:00etan hasi eta 13:30-14:00etan amaituta, nazioarteko lankidetzari eta laguntza humanitarioari buruzko hitzaldiak eskaintzeko nazioarteko erakundeetako eta unibertsitateko profesionalen eskutik. Hitzaldi horietan azalduko digute euren erakundeek zelan egiten dieten aurre klima-aldaketak eragindako erronka berriei.

### 5.6 **Artxiboak: artxibo pribatuak eta horien garrantzia historiaren ikerketa bultzatzeko**

Artxibo/funts pertsonalen garrantzia aztertzeko eta horri buruz hausnartzeko jardunaldia.

Dokumentu eta funts multzo horien egoera nabarmen aldatu da azken urteotan. Horien kopurua nabarmen handitu da, eta interes handiagoa dago funtsak antolatu, deskribatu eta erabiltzaileen esku jartzeko zereginetan, funtsok eduki dezaketen eduki politiko, kultural, sozial, ekonomikoa eta beste. Gaur egun, artxibo pertsonalak ezinbesteko iturri bihurtu dira biografiak, erreferentziazko lanak eta ikerketa-lanak egiteko.

ALDEErekin (Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte) lankidetzan antolatuko dugu mintegia, arloko profesional, ikertzaile, ikasle eta abarrentzat.

## 5.7 Hezkuntza eraldaketa

Jardunaldi horren bidez, gogoeta egin dugu hezkuntza arloaren erronkei nola aurre egin eztabaidatzeko.

## HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

### 5.8 Indarkeria matxistari buruzko hiru hitzaldi (Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan)

Norma Vazquez psikologo feminista eta indarkeria matxistan adituaren eskutik, indarkeria matxista pairatu duten emakumeen hainbat esperientzia ezagutuko ditugu.

- Inguruneak bikoteko indarkeriari ematen dion erantzuna: eremu digitaletako indarkeriak, indarkeria obstetrikoa, indarkeria bikarioa.
- Biktimak eta birbiktimizazioa: zer eskatzen diegu indarkeria jasaten duten emakumeei? Zergatik eta nola eskatzen diegu?
- Sexu-indarkeria eta abusua haurtzaroan: familian isildutako indarkeria agerian uztearen ondorioak.

### 5.9 Bi hitzaldi *Helduak* elkartearekin lankidetzan

Helduak Elkartearekin elkarlanean, hitzaldi batzuk antolatzen ari gara gaur egun gure adinekoak gehien kezkatzen dituzten gai batzuk jorratzeko asmoz. Segurtasuna, osasuna, zahartze aktiboa, pentsio-sistema eta abar.

2023an, hiru hitzaldi aurreikusi ditugu:

- Zaintzaileak zaindu eta horren inguruko zailtasunak.
- Osteak eta iruzurrak: Internet.
- Adineko eta mendekotasun egoeran daudenentzako lehen sorospenak: adibide praktikoak.

### 5.10 *Emakume Abertzale Batza Araban*

Emakumeak apurka-apurka hasi ziren ekitaldi abertzale publikoetan parte hartzen XX. mendearen hasieran eta, 1922an, Emakume Abertzale Batza (EAB), euskal abertzaletasunaren zabalkundearekin engaiatutako emakumeen elkarte sortu zen. Elkarteak gizarte-ekimen ugari sustatu zituen Euskadin orain dela 100 urte.

Arabako emakumeen elkarte honen historiari buruz mintzatuko zaigu Roman Berriozabal.

### 5.11 *Euskal lankidetzaren eraldaketaren, elkartasunaren eta nazioarteko harremanen ahalmenaren etorkizuna*

30 urtetik gorako euskal lankidetzak izugarritzko ahalmena dakarkio Euskadiri, oso ezezaguna bada ere. Zalantzarik gabe, lankidetzak funtsezko elementua da eta izan behar du etorkizuneko Euskadirentzat, bai elkartasunaren ikuspegitik begiratuta, bai Herriaren posizionamendu globalaren ikuspegitik.

Proiektuen eta estrategien inguruko hainbat adibide baliatuz, etorkizuneko ahalmen hori argitzen ahaleginduko gara.

Hizlaria: Paul Ortega, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

### 5.12 *Euskal abertzaletasuna eta hedabideak (bi hitzaldi)*

Lehen euskal egunkari jeltzalea, *Bizkaitarra* eta *La Vasconia*-ren 130. urteurrenaren, *Euzkadi* egunkariaren lehen zenbakiaren 110. urteurrenaren eta *La Voz de Navarra* egunkariaren mendeurrenaren kariatz, bi hitzaldi antolatuko ditugu euskal abertzaletasunak idatzizko komunikabideekin izan duen eta gaur egun duen harremana aztertzeko.

Lehenengo hitzaldian, duela mende bateko harremana aztertuko da eta, bigarrean, gaur egungo harremana aztertuko da.

### 5.13 *Luis Alavaren hilketaren 80. urteurrena*

Luis Alava 1943ko maiatzaren 6an fusilatu zuten. Alava gogozko buruzagi abertzalea izan zen, bereziki, oso eginkizun esanguratsua izan zuena *Alava sarea* deiturikoa antolatzen, hau da, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuko Antolakuntza, Informazio eta Inteligentzia Zerbitzuen barruko antolakundea zuzentzen. 2023an, Luis Alavaren hilketaren 80. urteurrena izango da.

Sareak oso lan garrantzitsua egin zuen preso politikoei eta haien familiei laguntza ematen, kartzelen eta kanpoaldearen arteko harreman-ildoak bideratuz, ezkutuko militante eta jarraitzaileak harrapa zaitzaten galaraziz eta Frantziara ihes egin zezaten erraztuz. Geroago, Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, sareak aliatuei lagundu zien.

#### 5.14 *Sabino Arana Goiri (bi hitzaldi)*

2023an, *Larrazabalgo Zinaren* 130. urteurrena beteko da. Ekitaldi hori erabili zuen Sabino Arana Goirik lehenengoz bere ideia politikoak azaltzeko.

Bestalde, Aranaren heriotzaren 120. urteurrena ere beteko da datorren urtean. Bi urteurrenak kontuan hartuta, bi hitzaldi antolatuko ditugu euskal abertzletasunaren sortzailearen eta horren legatuaren inguruan.

#### 5.15 *Joseba Goikoetxearen hilketaren 30. urteurrena*

1993ko azaroaren 22ko goizean, Joseba Goikoetxea Ertzaintzako sarjentu nagusia tirokatu zuen ETako komando batek, semeetako batekin autoan zihoala eta Bilboko Campo Volantinetik gertu zegoen semaforo batean gelditu zela. Lau egun geroago, azaroaren 26an, Goikoetxea konortea berreskuratu gabe hil zen, 42 urte zituela,

Joseba Goikoetxea funtsezko protagonistetako bat izan zen Euskadik bere autogobernua aurrera egiteko eta bakea lortzen egindako bide luzean.

Hitzaldi bat antolatuko dugu haren oroimenez.

#### 5.16 *Juan Ajuriagerraren jaiotzaren 120. urteurrena*

Juan de Ajuriagerra (1903-1978) XX. mendeko pertsona garrantzitsuenetako bat izan zen euskal abertzaletasunaren historian. Berak bideratu zituen Euzko Alderdi Jeltzaleak eta alderdiaren ordezkariak Herri honen eraikuntzan eta garapenean ondutako une gogoangarrienetako batzuk. Bere jaiotzaren 120. urteurrena dela eta, hitzaldi bat antolatuko dugu Ajuriagerrak utzitako ondare politiko garrantzitsua gogoratzeko.

## 6 EUSKARA

Euskaltzaindiarekin elkarlanean, EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko erakunde publikoetako ordezkariekin eta berrogeita hamar eragile eta gizarte erakunderekin batera, euskarak datozen urteotan izango dituen erronkak aztertuko ditugu. Horretarako bi mintegi antolatuko ditugu, horietako bat uztailaren erdialdean eta bestea abenduaren erdialdean.

# 7 GAZTERIA

## 7.1 Tailer didaktikoak

2023an, eskaintza didaktikoa zabaltzeko asmoa dugu, adin-tarte guztientzako tailerrak eskainiz, unibertsitateko ikasleei, adinekoei eta guzti.

Beste alde batetik, begiz jo dugu historiari buruzko tailerrak egitea bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleentzat, gure eskaintza ikastetxeetako ikasketa-eskariari erantzuteko helburuz.

Ildo horretan, sei multzotan bildutako berrogei bat tailer antolatuko ditugu.

### [1] **Etorkizuna eraikitzen: Izan garelako izango dira** *Construyendo el futuro: Izan garelako izango dira*

- **Historiako tailerrak.** Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, gerraren ondorioetan sakonduko dugu: hobiak aurkitzea, DNA aztertzea...
- **Bilbo eraikitzen.** Bilboko iragana eta oraina ezagutuko ditugu atzoko eta gaurko irudiak uztartuz.
- **Bilbo eraikitzen. Zazpikaleak**

Tailer honen helburua Bilbo hiriaren iragana eta oraina ezagutzea da, Zazpikaleetatik Zorrotzaurreraino. Horretarako, antzinako eta egungo argazkiak, kolorea emateko margoak eta kartoizko oinarri bat erabiliko ditugu, 3D efektua lortzeko muntaia eginez.

Hiriaren historian balio handia duten eraikin, leku eta agertoki zaharrak ezagutariko dizkiegu ikasleei, taldean lan egingo dugu eta tailerraren amaieran, talde-argazkia egin eta tailerraren azken emaitza erakutsiko dugu.

### [2] **Euskadi Munduan**

- Kanpoko ekintza, nazioarteko harremanak, migrazioak, erbestealdia...

### [3] **Artea, zientzia, teknologia, berrikuntza** *Arte, ciencia, tecnología, innovación*

- **Ganbera estenoipekoa egitea kartoizko kutxa bat erabiliz.** Lehengo argazki-kameren printzipioak garatuko ditugu.
- **Ganbera estenoipekoa eta irudiak errebelatzea.** Argazkigintzan murgilduko gara irudian historia jorratuz. Hasteko eta bat, ganbera (oinarrizko argazki-kamera) bat egingo dugu eta hori baliaturik argazkiak egingo ditugu. Tailerraren amaieran, argazkiak errebelatuko ditugu.

- **Tximistargazkia.** Argazkigintza ezohiko ikusmolde batetik landuko dugu eta argazkiak aterako ditugu argazki-kamerarik erabili barik.

[4] **Idaztea eta amets egitea Nurren amamarekin**

*Escribir y soñar con la abuela de Nur*

- Honako tailer hau Toti Martínez de Lezea idazlearen eskutik egiten da ikasleak gogatu eta irakurzaletasuna sustatzeko, benetako istorioak direla bide.

[5] **Mende berriko eskola: Kulturartekotasuna**

*La escuela del nuevo siglo. Multiculturalidad*

- **Taumatropoa** jostailu optikoa da eta irudiak mugitzen direlako itxura sortzeko erabiltzen da.
- **Kolore hiperkonektatuen tailerrean**, kolorearen alderdirik abstraktuen eta esperimentalena landuko dugu. Hala, hainbat gai erabiliko ditugu erliebeko marrazkia egiteko, baita gatza eta tenperak ere.
- **Kolore hipekonektatuak.** *Suziriak*

Tailer honetan, magiaz beteriko orri-markatzailea egingo dugu, koloreak suziriak bailiran hiperkonektatuko direlako.

- **Gure ikurrak. Ikurrina**

Tailer honetan, euskal sinbologia landuko dugu artearen bitartez. Material eta ehundura desberdinak probatzeko aukera izango dute ikasleek, eta *collage*-aren teknika erabiliz, adierazpen artistikoa landuko dugu euskal ikurrak atxakiatzat hartuta.

- **Gure ikurrak. Lauburua. Serigrafia-tailerra**

Tailer honetan, ikasleek serigrafiaz ikasiko dute; teknika artistiko hori etxean erabil daiteke modu errazean eta ekipamendu handiren beharrik gabe.

Elastiko bat apainduko dugu lauburua ezarrita, hots, euskal kulturaren ikur adierazgarri eta ezagunenetako bat. Bidenabar, haren esanahia eta jatorria ezagutuko dituzte, eta, aldi berean, serigrafiaren hasi-masiak ezagutuko dituzte.

- **Lauburuaren estanpazioa**

Kortxo egindako edalontzi-azpiko bat sortuko dugu lauburuaz –euskal kulturaren ikur adierazgarrienetako eta ezagunenetako batez– apainduta.

Bidenabar, haren esanahia eta jatorria ezagutuko dituzte, eta, aldi berean, estanpazioaren hasi-masiak ezagutuko dituzte.



- **Liburu galduaren bila**

Jarduera didaktiko hau *Nor gara gu?* erakusketaren eta erakusketak islatu nahi duen errealitatearen gakoak aztertzen lagundu diezaguke. Nolanahi ere, proposamen irekia da, ikaslea berea izan behar delako protagonista.

*Altxorraren bila* moduko bat sortu dugu erakusketaren barruan, **LIBURU GALDUAREN BILA, NOR GARA?** izenekoak, bisitariak gure historia kontatzen duten hainbat txataletan murgil daitezten.

[6] **Historia: Ezagutu eraldatzeko**

*Conocer para transformar*

- **Burdin Gerrikoaren Interpretazio Zentroa.** Historiaren barruan, gerra eta haren ondorioak landuko ditugu.
- **Arboglifoak.** Arboglifoen bidez, euskal artzainen (batik bat, Ameriketara joandako euskal artzainen) istorioa ezagutuko dugu eta arboglifoak zer diren azalduko dugu.
- **Picassoren 'Guernica'.** Tailer honetan, gure historia aletuko dugu eta, bide batez, nazioartean sekulako ospea hartu zuen margolaria hobeto ezagutuko dugu. Tailer honetan, hasteko, banako lana egingo dute ikasleek eta, geroago, taldeko lana landuko dugu. Horretarako, banako marrazkiak lotuko ditugu eta hormairudi aparta onduko dugu.

- **Bilboko lauza**

Bilboko beste ikur behinenetako bat espaloietako lauza ospetsua da. Tailer honen bidez, umeez Bilboko lauzaaren historia, diseinuaren zergatia, hiribilduan noiztik dagoen... eta beste gauza asko ikasiko dituzte!

Arte plastikoak eta modelatzea landuko ditugu, gure lauza entzutetsua sortu arte, eta bakoitzari gehien gustatzen zaion koloreaz edo koloreez margotuko du. Horrela, saioa amaitutakoan, ikasleek sortutako lauza elkartzeko baditugu, ikastaldea Bilboko zoru berria asmatuko du...

- **Gabonetako zorion-txartela PIKA-PIKA animazio-teknika erabiliz (linternak)**

Tailer honen helburua Gabonetako zorion-txartela sortzea da, Pika-Pika teknika erabiliz. Teknika hori animaziozko teknika da, eta linterna batzuk baliatuz, marrazkiak sortzen dira argazki bakoitzean. Geroago, irudi horiek guztiak batu egiten dira film 'biziduna' sortzeko.

Tailerraren hasieran, azalpen laburra eman eta teknika honen oinarriko edukiak ulertzeko ariketa laburrak egingo dira.

- **Gabonetako apaingarriz hornitutako arboglifoak**

Tailer honen bidez, euskal artzainek hainbat txokotara, batez ere, Ameriketara, egindako emigrazioaren berri emango dugu, eta arboglifoak zer diren azalduko diegu ikasleei (euskal artzainek Ameriketako basoetako zuhaitzetan egiten zituzten grabatuak), gure historiaren atal ere badirelako.

Ondoren, ildo horretatik abiatuta eta zuhaitz-enborreko xaflak (zurezko diskoak) erabiliz, Gabonetako apaingarri polita landuko dugu.

- **Gabonetako apaingarriak egiten Hama Beads erabiliz**

Tailer honetan Gabonetako apaingarriak egingo ditugu Hama Bead direlakoan irudiak sortuz. Hama Bead horiek plastikozko pieza txikiak dira, hainbat koloretakoak, eta irudiak osatu daitezke halakoak baliatuz eiteak eta tamainak emanda, baita hiru dimentsioko objektuak sortu ere.

- **Gabonetako txartelak**

Eguberria hurbildu ahala, geuk besteei zorionak emateko eta besteek guri zorionak emateko gogoazazaltzen zaigu beti. Eta telekomunikazioek nabarmen aurrera egin dutenez, modan jarri da Gabonaldia baliabide teknologikoak baliatuz zoriontzia: sms-ak, Whatsapp, Facebook, Twitter eta abar luzea, Horiek guztiek bazter utzi dituzte, ahanztura betean, Gabonetako ohiko zoriontxartelak, hain zuzen ere, etxeko atariko postontzian jasota, horrenbesteko ilusioa pizten zigutenak.

Jarduera hau dela medio, tradizio hori berreskuratu nahi dugu eta, horretarako, eskuz egindako Gabonetako zoriontxartelen tailerra egitea proposatzen dugu eta, bide batez, «*Olentzero eta oparien ordua*» filma ikustea.

Zoriontxartelak guk geuk egitea eta diseinu jatorrez pertsonalizatzea jarduera ederra da Gabonak zoriontzeko.

- **Gabonetako tximistargazkia.**

Tailer honek gaur egun ahaztuta dagoen argazkilaritza analogikoaren garaira eramango gaitu, argazkiak egiteko modu digitala bakarrik ezagutzen duten gazteei erakusteko.

Hala, neska-mutilak argazkilaritza analogikoaren munduan murgilduko ditugu, tximistargazkiaren teknika ezagututa.

Tailerrean, hamaika objektu erabiliz, hala nola pinaburuak, malutak eta abar Gabonetako konposizio bat sortuko dugu.

- **Gabonetako zorion-txartela, Stop Motion (animazioa).**

Tailer honen bidez, Gabonetako postal bitxi bat prestatuko dugu.

Stop Motion teknikaz baliatuko gara txartela egiteko. Stop Motion deritzon teknika zinemagintzan erabiltzen da eta pertsonaiak edo objektuak animatzean datza, irudiz irudi, argazki bidez hartzen ditugun mugimendu txikiak bilduz, geroago, denen mugimendu-segida bat eratuta.

Fotogramaz fotogramako animazioa sortuta, bizidun bilakatuko dugu Gabonetako objekturik bereizgarriena, hau da, zuhaitza, eta apaingarriak ere sortuko ditugu animazio polit horretan ager daitezten.

- **Gabonetako kolore hiperkonektatuak**

Tailer honetan, kolorearen alderdirik abstraktuen eta esperimentalena landuko dugu. Hala, hainbat gai erabiliko ditugu erliebeko marrazkia egiteko, baita gatza eta tenperak ere, koloreak berez hiperkonektatzeko eta magiaz beteriko Gabonetako arbola sortzeko.

- **Elur-panpinaren arboglifoa**

Tailer honen bidez, ikasleek euskal artzainen migrazioaz ikasiko dute, batik bat, Ameriketara egindako migrazioaz, eta arboglifoa zer diren irakastiko diegu (euskal artzainek Amerikako Estatu Batuetako zuhaitzetan egiten zituzten grabatuak), gure historiaren atal bilakatu direlako. Geroago, gaiarekin bat etorritik, zuhaitz-xaflak erabiliz (zurezko diskoak), halako bi elakrtuta, elur-panpina egingo dugu Gabonetako arbolan zintzilikatzeke.

- **Olentzeroren elur-bola**

Tailer honetan euskal Gabonetako pertsonaia txeratsuenak landuko ditugu: Olentzero eta Maridomingi.

## 7.2 Hitzaldiak eta mintegiak

Ondoko gaietarako buruzko hitzaldiak eta mintegiak antolatuko ditugu 2023an:

- a) Objektuen bizitza Museoan; mintegi horretan, Museoaren funts eta jardueren lotutako gaiak jorratuko ditugu.
- b) *Emakume bikainak*. Atal honetan, gure mugetatik harago ezagunak izan diren emakumeen lanak eta garrantzia ezagutzera emango ditugu.
- c) *Emakumea eta kirola*. Mintegi horretan, emakumeek kirol-arloan egun duten egoera profesionala eta pertsonala ezagutuko dugu.

- d) *Itsasoa, berdintasun-lurralde*. Sail honetan, gizonezkoek eta emakumeek itsasoaren inguruan izandako bizipenak ezagutaraziko dira.
- e) *Prebentziozko kontserbazioa*. Aurreko bi urteetan bezala, jardunaldi batzuk antolatuko ditugu unibertsitateko ikasleentzat, Museoan egiten ditugun kontserbazio-lanei buruzkoak.
- f) *Espedizioak*: ingurune naturalari buruz egindako dokumentalak eta film laburrak ezagutzera emateko ekimena

### **DESKRIBATUTAKO JARDUEREN HELBURU NAGUSIAK**

- Euskal Herriko gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-alderdi garrantzitsuenak ezagutzera ematea, bereziki, gaurkotasuna duten auzi esanguratsuenak.
- Ezaupideak zabaldu eta partekatzea jakintza-arlo askotatik.
- Gaitasun kritikoa garatzea: egungo gizarteak gaitasun kritiko handia eta ingurunea zorrotz aztertzen duten pertsonak behar ditu. Giza garapenaren alderdi hori, gure ustez, funtsezkoa eta ezinbestekoa da gazteen prestakuntzan, helduaroan gizarte-erantzukizuna izan dezaten.
- Arian-arian azaltzen zaizkigun erronka eta aukera berriei irtenbidea ematea.

### **EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA ETA MUSEOA, FUNTSEZKO TRESNAK EUSKAL GIZARTEAREN GARAPENEAN**

Sabino Arana Fundazioa 1988 urrian sortu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa. Sorrerako helburuetako bat Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eratzea izan zen eta horretan egin zituen ahaleginak eta bi. Jakina denez, agiritegi historikoen herrialde jakin baten historia biltzen dituzten funtsak gorde, kudeatu, zabaldu eta herritarren eskuan jartzen dituzte. Gaur egun, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak dokumentazio historiko esanguratsua dauka hainbat funtsetan banatuta: Agiritegia, Liburutegia eta Hemeroteka. Agiritegiko funtsetan, aipatzekoak dira XIX. eta XX. mendeetako fitxategi historikoak, erbestealdian ziren euskal ordezkariak eta 1936ko gerran sorturiko funtsak, herrialdearen barruan nahiz kanpoan; era berean, alderdi edo elkarte politikoaren agiriak, kultura-elkarteen agiriak, enpresen agiriak eta norbanakoen agiriak ere badaude.

Liburutegiak eta Hemerotekak Historia Garaikideari, Politikoari, Antropologiari, Zuzenbideari eta Gizarte Zientziei buruzko liburuak gordetzen dituzte. Guztira, berrogeita hamar agiritegi-funts baino gehiago, 4.600 instalazio-unitate, liburutegian bildutako 46.486 monografia eta argitalpen seriatuen (egunkariak eta aldizkariak) 7.400 izenburu baino gehiago, 192.800 ale baino gehiago orotara. Milaka dokumentu eta objektu, guztiak ere atal egokian sailkatu, deskribatu eta instalatu behar direnak. Horiez gain, Euskal Abertzaletasunaren Museoan jasotako dohaintzak aipatu behar

ditugu. Azpimarratu beharra dago Fundazioan jasotzen diren dohaintza guztiak, bai Agiritegian, bai Museoan, altruistak direla, hau da, ez dago kontraprestazio ekonomikorik. Sabino Arana Fundazioa da abertzaletasunaren inguruko agiritegi eta museo historikoa sortu, kudeatu eta zaintzen duen fundazio bakarra. Bi erakundeok gizartearen zerbitzuko jarduteko eta gure ondare historiko eta kulturala zabaltzeko asmoz sortu ziren. Azken batean, gure memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten dugu, beste ezein fundaziok egiten ez duen moduan.

Agiri, gauzaki, argazki eta bestelako guztiak ikertzaileen, norbanakoen, hedabideen eta besteren esku daude. Eta bertan dauden funtsen erabilgarritasun eta garrantziaren erakusgarri, esan dezagun erruz kontsultatu direla. Agiritegiko dokumentazioa baliatu dute gudari, ertzain, preso eta iheslari askok pentsioa edo kalte-ordainak kobratzeko.

Izan ere, gure ahalbideen heinean, eskaera guztiei erantzun egiten diegu. Urte hauetan guztietan, dokumentazioari lotutako eguneroko zereginenez gain (erregistroa eta deskribapena, gordetzeko eta zabalkundea egiteko) eginkizun atsegina dugu banako zein taldeko erabiltzaileei arreta egitea, ikertzaile profesionalak nahiz informazio jakinen baten bila gurera datozen norbanakoak izanik ere. Eta hori guztia egiten dugu inolako kontraprestazio ekonomikorik eskatu gabe.

Gure funtsak erabiltzeko, ez da baimen berezirik behar; gainera, esan dezakegu gure funtsak erabili dituzten ia guztiek oso gustura hartu dituztela eskainitako dokumentazioa, hartutako informazioa eta jasotako tratua.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago hedabideek, herri-erakundeek eta bestelako antolakundeek askotan baliatzen dituztela gure funtsak liburuak irudiztatzeko, artikuluak hornitzeko, erakusketak antolatzeko... eta guztiz azpimarragarria da bertako dokumentazioa oinarrizkoa gertatu izana ikerlan eta argitalpen ugari bideratzeko.

Agiritegia eta museoa aintzat harturik, ia 8.500 kontsultari erantzun diegu eta ia mila ikertzaile etorri dira gure kontsulta-aretoa. Euskal ikertzaileak nagusi diren arren –Bizkaiko Lurralde Historikoan gaudela eta– katalanek, madrildarrek, frantsesek, alemanek, amerikarrek, japoniarrek eta bestek egin dituzte kontsultak gure agiritegian. Ikertzaileek gure agiri-funtsak erabili dituzte hainbat argitaletxetako ehun bat argitalpenetan. Beste alde batetik, gure fundazioak ia-ia 200 lan argitaratu ditu, monografiak eta ikus-entzunezkoak kontuan hartuta.

Bestetik, Museoak 210 erakusketa propio –iraunkorrek nahiz aldi baterakoak– baino gehiago antolatu ditu.

Museoko gauzakiak eta agiriak ehun erakusketetan baino gehiagotan egon dira ikusgai Euskadin, estatuan eta nazioartean: Madril, Londres... Argazki-funtsak ere

sarritan erabili dira Euskadiko, estatuko eta nazioarteko hedabideetan nahiz telebista ekoiztetxeetan.

Gaur egun, museoaren zeregin nagusiak ondokoak dira: argazki-funtsa katalogatzea, dekorazio-arten eta arte grafikoen funtsa berrantolatzea eta dohaintza berriak erregistratzea, inbentarioan jasotzea eta katalogatzea. Hala, milaka objekturen eta ehunka mila argazkiren zaintza kudeatzen du.

Gainera, nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Agiritegi Historikoa 2013an zabaldu zela gure lankidetzari esker, eta herritar guztien esku jarri duela euskal administrazio publikoaren 1936tik aurrerako funts historikorik behinena. Sabino Arana Fundazioak dokumentazio ugari hori guztia zaindu, kudeatu eta ikertzaile nahiz norbanakoen esku jarri du 90eko hamarkadatik. Antzeko zerbait gertatu zen, hein txikiagoan –funtsen tamainagatik diogu, ez garrantzi historikoagatik–, 2002. urtean. Urte hartan, Kataluniako Arxiu Nazionalari eman genion ordura arte geuk gordetako eta zaindutako Kataluniako Generalitat-earen dokumentazio historikoa (Errepublika eta erbestealdia).

**A) AGIRITEGIKO JARDUERAK**

- Erabiltzaileentzako eta ikertzaileentzako arreta: kontsultak jasotzea (erregistroa eta erantzunak) eta ikertzaileentzako zerbitzua aretoan eta urrutitik (informazioa, dokumentazioa ematea eta jasotzea, fotokopiak egitea, kopiatu beharreko dokumentazioa eskaneatzea, irudi digitalizatuak pdf fitxategi babestuetan bidaltzea...).
- Agiritegiko funtsak: «Loiola Irratia» funtsei doazkien dokumentazioa antolatzen eta deskribatzen jarraituko dugu; «Ixaka Lopez de Mendizabal» funtsak antolatzen jarraituko dugu eta Bizkai Buru Batzarraren 1977-1990 aldiko aktak deskribatzen eta berrantolatzen jarraituko dugu.
- Urtean zehar jasotzen diren dohaintzak sailkatzea, erregistratzea eta instalatzea.
- Ikus-entzunezkoak: ITESA ekoiztetxearen agiritegiko grabazioak (filmak) erregistratzea, deskribatzea eta formatu digital berrietara birmoldatzea (80ko eta 90eko hamarkada).
- Euskarriak helaraztea ekoiztetxeei eta hedabideei, gure historiako gertaera edo pertsona jakin batzuei buruzko lanak egin ditzaten.

**B) LIBURUTEGIKO JARDUERAK**

- Dohaintza eta/edo erosketa bidez, liburutegian txertatu direneko liburu berriak datutegian sartzeta. Aleei bizkar-etiketa jartzea eta biltegian gordetzea.
- Norbanakoen dohaintzetatik eskuratutako aleak hautatzea.
- Gure liburutegian erabili eta edonoiz kontsultatzeko modukoak ez direnak Gaintzara edo beste liburutegi edo/eta dokumentazio-zentro batzuetara bidaltzen dira eta nolabaiteko balioa dutenak (balio historikoa, politikoa edo sentimental) Arteako urruneko biltegian gordetzen dira.
- Artean gordetako funtsak lekualdatzea.

**C) HEMEROTEKAKO JARDUERAK**

- Hemerrotekan dohaintza eta/edo erosketa bidez (harpidetzak) eskuratzen diren titulu eta ale berrien erregistro-fitxak kudeatzea. Zenbakien antolaketa kronologikoa egitea eta gordailura eramatea.
- Errepublikatutako aleak garbitzea eta nolabaiteko balioa duten aleak Arteako urruneko hemerrotekara eramatea. Aurreko atalean bezala, Artean gordetako material hemerografikoa berrantolatu eta birsailkatuko da aurren.

- ‘Hustuketa’ izeneko datutegia (orokorra) elikatzea: gaur egungo egunkari eta aldizkarietan (*DEIA, Hermes, Historia Contemporánea...*) nahiz argitalpen historikoetan (*Euzkadi, Euzko Deya...*) argitaratu diren euskal abertzaletasunaren edozein alderdiri buruzko artikuluak erregistratzea,

#### **D. ARGITALPENEN KONTROLA / ARTIKULUAK / ARGITALPENAK / HITZALDIAK / IKERKETA / ERAKUSKETAK**

- DEIA egunkariarentzat, asteroko artikuluen argitalpena koordinatzea eta gainbegiratzea, *Historias vascas* izeneko atalaren barruan.
- «*Salvad a los niños*» eta «*Publicaciones del Nacionalismo vasco*» liburuen berrargitalpen digitalak kaleratuko dira.
- Hedabideekin (prentsa, irratia eta telebista) lankidetzan aritzea, eduki historikoak, efemerideak eta abar zabaltzeko».
- Hitzaldiak ematea.
- Mahai-inguruetan, biltzarretan eta adituen jardunaldietan parte hartzea.
- Sabino Arana Museoak antolatzen dituen erakusketen euskarri dokumentala prestatzea.
- Fundazioaren beste zeregin batzuetan laguntzea:
  - Bazkideen erregistroak eguneratzea (datuen babesa).
  - Fundazioak antolatutako mintegi eta hitzaldietan.

#### **E) INFORMATIKA - WEBGUNEA - SARE SOZIALAK: INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA**

Sabino Arana Fundazioaren webgunearen eguneratzea eta hobekuntzak.

Webgune berrian, datu-baseak eguneratzen jarraituko dugu, gure eguneroko jardueran sortzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari, dokumentu, albiste, bideo eta abarrei buruzko informazioa baliatuz.

Era berean, Agiritegiak euskarri historiko eta dokumentala emango die webguneako ‘Lau Haizetara’ atalean eta sare sozialetan (Facebook, Instagram eta Twitter) zabaltzen diren urteurrenei eta eguneroko albisteei.

Bazkideekiko eta harpidedunekiko harremana Mezu@ berripaper elektronikoa bidaliz egingo da. Segurutik, sistema berrian berripapera aldatu eta hobetu egingo da, baina garatzen ditugun jardueren berri ematen jarraituko du unean-unean.

Sabino Arana Fundazioan egiten diren hitzaldien, mintegien, liburuen aurkezpenen eta abarren grabazioak Internetera igotzen dira, geroago gure web-orritik edo YouTubeko profiletik ikusi ahal izateko.



## 9 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

### HELBURUAK

2023ko ekitaldian, gure asmoa da museoaren barruan bisita daitezkeen funtsak (arte grafikoak, ehungintza, dekorazio-arteak...) lekualdatzea eta berriro katalogatzea, aurreko ekitaldian beste biltegi batera eraman baitira.

Egiteko zehatz-zehatza da, piezaz pieza egin behar delako eta funtsei beste leku bat aurkitu behar diegulako, baina azken zereginak modua emango digu objektu guztien egungo egoera egiaztatzeko.

Gauza bera egin beharko da argazki-funts osoarekin, hori ere biltegi berrira lekuz aldatu baita, baina aipaturiko egitekoa gauzatzea ezinbestekoa da ale bakoitza, argazki bakoitza, non dagoen jakin eta erraz aurkitzeko.

Beste alde batetik, 1922-1923 urteen arteko mendigoizaletasun, futbol, txirrindularitza eta beste kirol-jarduera batzuez osatutako bilduma bat katalogatuko dugu.

Era berean, dohaintza gisa jasotzen ditugun objektuak eta materialak katalogatuko ditugu, eta, behar izanez gero, zaharberritu egingo ditugu.

Funtsei dagokienez, 2022an, dohaintza guztiz garrantzitsua jaso dugu argazki-funtsari lotuta, eta aleen egungo egoerari buruzko txostenak egin beharko dira, bai eta horien galera saihesteko ekintza-plana ere. Lan hori EHUko Kontserbazio Masterreko praktiketako ikasleekin egiten da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen aholkularitza jasotzen du, kontserbatzaileen eta masterreko irakasleen eskutik.

2023an, EHUko Arte Ederren Fakultateko «Agiri Kulturala» proiektuan parte hartzen jarraituko dugu. Bertan, museoko zenbait jardueratan parte hartzen duten ikasleek puntuak jasotzen dituzte unibertsitateko kreditu gisa erabiltzeko.

Prebentziozko kontserbazio-jarduerei ere ekingo diegu, hau da, bildumen balizko narriadurak ahal bezainbeste saihesteko beharrezko neurriak hartuko ditugu eta, horrela, tratamendu konplexuagoak saihestuko ditugu etorkizunean.

2023an, halaber, Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatzen dituen jarduera didaktikoak indartu nahi ditugu, eta gure instalazioak eta zerbitzuak ikastetxeen zerbitzura jarri, haien curriculum-programan lagungarri izan daitezen. Horretarako, 2021ean garatu genituen jarduerak eskaini nahi ditugu, bai jorratutako gaiak, bai adin-tarteak zabalduz, ahalik eta ikasle gehienengana iritsi ahal izateko, unibertsitateko ikasleak eta adinekoak ere helburu jarrita.

*Emakumeak Aberria Eginez* liburuaren aurkezpena egingo dugu, izen bereko erakusketa ibiltarian ere erabiltzeko.

## A) JARDUERAK

### 1. Museoko funtsak berriro instalatzea eta katalogatzea, biltegia lekualdatzearen ondorioz

Piezen kokalekua aldatuenez, 2023an, gure lehentasuna izango da argazki-funtsaren pieza eta irudi guztiei kokapen berria aurkitzea.

Lan zehatza eta neketsua da, erregistro bakoitza aztertu behar delako, baina une hori baliatuko dugu pieza bakoitzaren kontserbazioaren gaineko balorazioa egiteko.

1922-1923 urteetako irudiak erregistratzen, katalogatzen eta haietan gure ikurra txertatzen jarraituko dugu. Deskribapen fisikoa, erregistratutako irudien kontraste-tratamendua eta argazkiaren inbentario zorrotza ere egingo ditugu, haien kontserbazio-egoera, kopia-kopurua eta abar jasota.

Erregistroan jaso ostean, irudiak testu-fitxa egokian indexatuko ditugu.

Argazkiok hobeto kontserbatzeko, funtsezkoa da euskarri egokietan instalatzea, tamainaren, kontserbazio-egoeraren eta abarren arabera, argazki-albumetan, tamaina desberdinetako ph neutroa duten gutun-azalen bidez, irudi bakoitzera egokituta.

Gainerako bildumetan ere prozesu hori bera baliatuko dugu.

EHUko Leioako eta Gasteizko campusetako Arte Ederretako, Giza Zientzietako eta Kazetaritzako fakultateetako ikasleek parte hartuko dute katalogazioan.

### 2. *Nor gara gu?* erakusketa erdi-iraunkorra

2021ean, “*Nor gara gu?*” erakusketa inauguratu genuen, erakusketa erdi-iraunkor gisa antolatuta. Bertan, gai batzuk aldatuz joango dira urtero-urtero, eta aldi baterako erakusketak sortuko dira erakusketaren beraren barruan.

2023rako pieza berriak integratuko ditugu erakusketan eta *Emakumeak Aberria Eginez* aldi baterako erakusketa gehituko dugu bertan, Emakume Abertzale Batzak egun duen espazioaren irakurketa zabalagoa eginez.

Ikastetxeei *Nor gara gu?* erakusketaren karpeta didaktikoa zabalduko diegu, eta erakusketara bisita gidatuak ere eskainiko ditugu, bisitatzen gaituzten ikasleen adinetara egokituz.

2023an, pieza berriz jantziko dugu erakusketa eta *Emakumeak Aberria Eginez* aldi baterako erakusketa gehitu diogu, Emakume Abertzale Batza antolakundeak egun daukan esparruari garrantzi handiagoa emateko.

Ikastetxei *Nor gara gu?* erakusketaren karpeta didaktikoa zabalduko diegu, eta erakusketa ikusteko bisitaldi gidatuak eskainiko ditugu, betiere bisitan datozen ikasleen adinaren arabera egokituta.

### 3. Aldi baterako erakusketak

2022an, museoak berak sortutako aldi baterako hiru erakusketa antolatuko ditugu:

1. «Emakumeak Aberria Eginez» erakusketa elkarte horren mendeurrenaren kariaz egin da. Hala, horma-irudiak, gauzakiz betetako arask, agiriak, argazkiak eta argitalpenak erabiliz, euskal emakume haien historia kontatuko dugu. Erakusketa ibiltaria izango da.
2. «Mendirik Mendi. EMB 100 urte». Elkartea sortu zenetik, 100 urte bete dituen mendigoizaleen taldeari eskainitako erakusketa. Erakusketaren panelak eta beira-arak Euskadiko bazter askotara eramango ditugu eta erakusketotan, 2021ean eta aurreko urteetan jasotako dohaintzetatik hartutako mendigoizaleen irudi ezezagun eta argitaragabeak ikusi ahalko dira.
3. Gure erakusketa ibiltari hau ere eskainiko dugu «Alava sarea: Emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza. 1936-1947».

UPV/EHUko historialari eta irakasle Josu Chueca dugu erakusketaren komisariora. Frankisten aurkako eta Aliatuen aldeko erresistentziako kide gisa, emakumeek izandako garrantzia nabarmendu nahi du erakusketak.

Alava sarean, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako gizarte-maila guztietako kideak elkartu ziren.

1936 eta 1940 urteen artean, euskal emakumeek osatutako talde batek euskal presoan aldeko elkartasun-sarea eta Bigarren Mundu Gerran parte hartu zuten Aliatuentzako espioitza-sarea egituratu zuten. Antolakunde klandestino bateko kideak ziren eta guztiek ere indarkeriaz besteko hamaika jarduera gauzatu zituzten, Euskal Herriko askatasuna eta eskubideak berreskuratzeko xedez. Baina Alemaniako armada Parisen sartu zenean, 1940ko ekainaren 14an, erbestealdian zegoen Eusko Jaurlaritzaren Parisko ordezkariak konfiskatu zuen eta, horren ondorioz, sarea desegin zuten.

### 4. Emakumeak Aberria Eginez liburuaren aurkezpena

UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao eta Gurutze Ezkurdia Arteaga (Garaian ikerketa-taldea) irakasleek egindako ikerketa baliatuta eta EAB, *Emakume Abertzale Batza* elkartearen argazki-bilduma hautatuta, liburua prestatu dugu, eta *Emakumeak Aberria Eginez* deritzon erakusketarekin batera aurkeztuko dugu 2023an.

### 5. Parte-hartzea beste erakunde batzuen erakusketetan

Aurreko urteetan bezala, Museoak bildumaren zati bat maileguan uzten die erakundeei, eurek antolatzen dituzten erakusketetan erabiltzeko.

2022an, erakusketa hauetan parte hartuko dugu:

- Euskal Poliziaren Museoaren erakusketa iraunkorra. Museoak utzitako objektuak daude ikusgai erakusketa horretan.
- Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren erakusketa iraunkorra. Museoaren funtsetako batzuk erakusten dira bertan.
- Eusko Legebiltzarra. Erakusketa txiki bat dago areto batean eta, bertan, gure funtsen zati bat ere ikustea izango da.
- Museu Memorial d'Exili Jonquera herrian.

## 10 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA

Fundazioak ematen dituen sariak Sabino Aranaren jaiotegunaren oroitzapenez sortu ziren. Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu jauna buru dela, Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXXIV. edizioa urtarrilaren 29an egingo da, Bilboko Arriaga antzokian.

Dagoeneko 186 pertsona, elkarte eta erakundek jaso dute saria azken 33 edizioetan, gizartearentzako zerbitzu eta gogozko lana egitegatik. Izan ere, elkarrizketa, ahalegina, elkartasuna eta beste balio batzuk izan dira nagusi Sabino Arana Fundazioak antolatzen duen urteroko hitzordu honetan.

## 11 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

- 2022ko ekitaldian, Aranzadi Zientzia Elkartearekin lankidetzan jardungo dugu «Oroimena berreskuratzeko asmoz hildakoak hobietatik aterata». Era berean, Gerra Zibilean desagertutakoak, fusilatutakoak eta hobi komunetan lurperatutakoak aurkitzeko, hobietatik atera eta identifikatzeko helburuz, Aranzadi elkarteak garatzen ari den ikerlanen berri emango dugu.
- Beste erakunde, herrialdeko agintari eta Gerra Zibiletik bizirik atera ziren hainbat lagunekin batera, Gernikan, hiribilduko bonbardaketan izandako biktimen omenez egiten den lore-eskaintzan parte hartuko dugu apirilaren 26an.
- Ekainean, «Aterpe 1936» monumentuaren XVI. urteurrenean parte hartuko dugu.
- Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatuko ditugu, gure ume eta gazteek hobeto ezagut ditzaten gure historia eta bizi gareneko ingurunea.
- Beste ekitaldi batzuk.

## 12 KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA

- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twiter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, streaming bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Kolaborazioak Onda Vasca irratian hamabost egunik behin.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

## 13 JARDUEREN ONURADUNAK

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Bide horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan.

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsetan duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Eta hori betetzeko ahaleginak egiten ditugu barruko erabaki-organoetan –Patronatua eta abar–, gonbidatuetan eta parte-hartzaileetan.

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delako eta, bestetik, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztietako hizkuntza ofiziala delako.

Eusko Jaurlearitzak eta Eusko Legebiltzarrak onarturiko Euskara Sustatzeko Ekintza Planak hauxe dio: «ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera indartzea izango da». Ondorioz, egitasmo honek ESEPe planteatzen duen helburu nagusiarekin bat dator, bai eta helburua lortzeko planteatzen dituen zehar lerroekin ere, hala nola: «Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragiteak berebiziko garrantzia du, jakina, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak ematea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia eskaintzea,



hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarrizko azalpenak gizarteratzea, hizkuntza ezagutzetik erabiltzera dagoen jauzia egiten laguntzeko lantegiak antolatzea, lidergoa lantzea hizkuntzen normalizazioaren alorrean, eta abar. Sentsibilizazioak eta komunikazioak pisu nabarmena dute, beraz, esparru honetan».